eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

## CHIP KATEDRARI EKOIZPEN SEKTOREKO ENTITATEAK ATXIKITZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

### AURREKARIAK

Europako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioak "Cátedras Chip" deialdia aurkeztu du. Haren helburua da lankidetza publiko pribatua garatzea, prestakuntza-jarduerak, ikerketa-ekintzak eta emaitzen hedapena garatuz mikroelektronikaren eta erdieroaleen eremuan..

Deialdiak 2023-2027 aldian unibertsitate-enpresa katedrak sortzea finantzatzen du. Katedren helburua mikroelektronikaren eta erdieroaleen arloan prestakuntza, ikerketa eta garapena sustatzen duten jardueren garapena da. Espainiako unibertsitate publiko eta pribatuetara zuzendutako deialdi honek 80 milioi euroko aurrekontua du.

ETD/832/2023 (ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALA, 173 Ostirala, 2023ko uztailaren 21a III. Or. 105874 cve: BOE -A-2023-19882 Egiaztagarria https://www.boe es). Oinarri arautzaileak ezarri dira eta unibertsitatetik enpresarako katedrak sortzeko laguntzak emateko deialdia egin da (Cátedras Chip).

### I.-HELBURUA

UPV/EHUk, Chip katedren laguntzen onuradun izan daitekeen aldetik, katedra horien deialdian parte hartu nahi du, mikroelektronikaren eta erdieroaleen esparruan beren garapen zientifiko teknologikoa eta enpresetara eta gizartera transferitzea sustatzeko.

Horretarako, Chip katedren deialdian parte hartu nahi du, gai hauetan ikerketa garatzeko edo produktuak merkaturatzeko interesa duten enpresekin batera.

Deialdiak enpresa pribatuen parte hartzea eskatzen du, gutxienez jarduketa planaren zenbateko finantzagarri osoaren %15 enpresen aportazio ekonomikoa izan behar du.

## PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA ADHESIÓN DE ENTIDADES DEL SECTOR PRODUCTIVO A LA CÁTEDRA CHIP

### ANTECEDENTES

En el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia Europeo, El Ministerio de Asuntos económicos y Transformación Digital ha presentado la convocatoria Cátedras Chip que tiene como objetivo el desarrollo de la colaboración público-privada a través del desarrollo de actividades formativas, acciones de investigación, y difusión de resultados en el ámbito de la Microelectrónica y semiconductores.

La convocatoria financia la creación de cátedras universidad-empresa en el periodo 2023-2027. Dotada con un presupuesto de 80 millones de euros, está destinada universidades públicas y privadas de España que en colaboración con empresas desarrollen actividades que fomenten la formación e investigación y desarrollo en el ámbito de la microelectrónica y los semiconductores.

Al amparo de la presente orden ETD/832/2023 (BOLETÍN OFICIAL DEL ESTADO Núm. 173 Viernes 21 de julio de 2023 Sec. III. Pág. 105874 cve: BOE-A-2023-19882 Verificable en https://www.boe.es) se establecen las bases reguladoras y se convoca la concesión de ayudas para la creación de cátedras universidad-empresa (Cátedras Chip).

### I.- OBJETO

La Universidad del País Vasco UPV/EHU como posible beneficiario de las ayudas dentro de las cátedras Chip tiene interés en participar en la convocatoria de dichas cátedras para fomentar su desarrollo científico tecnológico y transferencia a las empresas y la sociedad de sus actividades en el marco de la microelectrónica y semiconductores.

Para ello está interesada en concurrir en la convocatoria de cátedras Chip junto con entidades del ámbito productivo del ámbito de interés o interesadas en su aplicación en los productos y servicios que ofrece.

La convocatoria exige la participación de entidades del sector productivo que aporte como mínimo el 15% del importe financiable total del plan de actuaciones.

Horregatik argitaratu da katedra osatuko duten entitateak hautatzeko prozedura hau.

## II.-ARLOAK

Chip katedraren deialdian definitutako gai-arloak hauek dira:

a) Zirkuitu mikroelektronikoen diseinua.

b) Osagai eta sistema mikroelektronikoen testa eta kapsulatzea.

c) Material eta gailu berriak mikroelektronikaren arloan.

d) Mikroelektronikari lotutako prozesu teknologikoak.

Unibertsitatea irekita dago goian aipatutako lau arlo tematikoetan parte hartzeko..

## III.- KATEDRAREN JARDUERAK

a) Prestakuntza-jarduerak.
b) Ikerketa-jarduerak, oinarrizkoak nahiz industrialak, eta haien garapena.
c) Dibulgazio-jarduerak, lankidetza publiko-pribatua eta ezagutzaren transferentzia

## IV.-JARDUEREN FINANTZAKETA

Jarduketak bi fasetan eginen dira:

- Lehenak onuradunak eskabidea aurkezten duenetik 2026ko ekainaren 30era arte iraungo du, eta bertan Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko funtsetatik datorren finantzaketa emango da.

- Bigarren fasea 2027. ekitaldian egingo da. Finantzazioa katedrako enpresek emandako katedraren berezko funtsekin estali beharko da nahitaez, eta, gutxienez, jarduera-planaren zenbateko finantzagarri osoaren % 15 izango da.

## V.- ENTITATEEN BETEBEHARRAK

Atxikitzen diren produkzio sektoreko entitateek konpromiso hauek hartzen dituzte:

a) Katedraren Jarduketa Planean identifikatutako jarduerak proposatu, sustatu eta horietan parte hartzea.

Es por ello la publicación de este procedimiento de selección de las entidades que formarán parte de la cátedra.

## II.-ÁREA TEMÁTICA

De las áreas temáticas definidas en la convocatoria de la cátedra Chip son las siguientes:

a) Diseño de circuitos microelectrónicos.

b) Test y encapsulado de componentes y sistemas microelectrónicos.

c) Nuevos materiales y dispositivos en el área microelectrónica.

d) Procesos tecnológicos ligados al área de microelectrónica.

La universidad está abierta a la participación en las cuatro áreas temáticas arriba indicadas.

## III.- ACTIVIDADES DE LA CÁTEDRA

a) Actividades de formación.
b) Actividades de investigación, tanto fundamental como industrial, y desarrollo experimental.
c) Actividades de divulgación, cooperación público-privada y transferencia del conocimiento.

## IV.-FINANCIACIÓN DE LAS ACTIVIDADES

Las actuaciones se llevarán a cabo en dos fases:

- La primera comprenderá desde el momento de la presentación de la solicitud por el beneficiario hasta el 30 de junio de 2026, en la que se concederá una financiación procedente de los fondos del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

- La segunda fase se desarrollará en el ejercicio 2027, en el que la financiación deberá cubrirse obligatoriamente con fondos propios de la cátedra aportados por las empresas de la cátedra y deberá suponer como mínimo un 15 % del importe financiable total del plan de actuaciones.

## V.-OBLIGACIONES DE LAS ENTIDADES

Las entidades del sector productivo que se adhieran se comprometen a

a) Proponer, promover y participar en las actividades identificadas en el Plan de Actuación de la cátedra.

b) Unibertsitate onuradunarekin eta katedra osatzen duten gainerako erakundeekin elkarlanean aritzea, Espainiako industria-sarearen barruan balio erantsiko produktu edo zerbitzuei ikerketa-emaitzak aplikatzearen ondorioz unibertsitatearen eta enpresaren arteko lankidetza sustatzeko.

c) Katedraren zerbitzura jartzea ikerketa-emaitzak zein merkatu-eremutan aplikatu behar diren, eta, hala badagokio, katedraren barruan jakintza eraginkorra transferitzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak eta langileak.

d) Hartutako konpromiso ekonomikoei aurre egiteko enpresak duen kaudimen ekonomikoa erakustea.

## VI.-ENPRESEN PARTAIDETZA ETA HAUTAKETA

Entitate eskatzaileek baldintza hauek aipatzen dituen eskaera aurkeztu beharko dute: .

A) Enpresaren kaudimen ekonomikoa frogatzea, hartutako konpromiso ekonomikoei aurre egiteko. Baldintza hori parte hartzeko giltza da.
B) Dokumentu honetan ezarritakoaren arabera interesekoa den gai-eremua identifikatzea eta aukeratutako gai-arloan esperientzia eta ibilbidea duela egiaztatzen duten lan eta zerbitzuen zerrenda aurkeztea.
C) Katedrak emaitzak transferitzen laguntzeko garatu behar dituen produktuak merkatuei buruzko ezagutza eta/edo presentzia erakustea.
D) Katedrari ekarpen ekonomikoa egiteko proposamena aurkeztea. Finantzaketaren% 15 gutxienez ematen duten enpresak baloratuko dira.
E) Katedraren jarduerak, zerbitzuak eta produktuak zabaltzeko komunikazio-kanal propioak izatea.

Jasotako eskaerak, dokumentu honen VII puntuak adierazitako irizpideei jarraituz ebaluatuko dira.

Katedran sartuko diren enpresa kopuru maximoa, Unibertsitatearen erizpidean geldituko da.

b) Colaborar con la universidad beneficiaria y resto de entidades integrantes de la cátedra en el fomento de la colaboración universidad-empresa, que resulten en la aplicación de resultados de investigación a productos o servicios de valor añadido dentro del tejido industrial español.

c) Poner al servicio de la cátedra el conocimiento del área de mercado en el que aplicar los resultados de investigación, así como los medios técnicos y de personal, en su caso, que sean necesarios para asegurar una transferencia de conocimiento efectiva dentro de la cátedra.

d) Demostrar la solvencia económica de la empresa para hacer frente a los compromisos económicos adquiridos.

## VI.-PARTICIPACIÓN y SELECCION DE LAS EMPRESAS

Las entidades solicitantes deberán presentar la solicitud a la que se refieren las presentes condiciones

A) Acreditar la solvencia económica de la empresa para hacer frente a los compromisos económicos adquiridos. Esta condición es la clave de la participación.
B) Identificar el área temática que sea de su interés según lo establecido en el presente documento y presentar una relación de trabajos y servicios que acrediten experiencia y trayectoria en el área temática seleccionada.
C) Demostrar el conocimiento y/o presencia sobre los mercados de los productos a desarrollar por la cátedra para favorecer la transferencia de los resultados
D) Presentar una propuesta de Contribución económica a la cátedra. Valorándose las empresas que aporten al menos un 15% de la financiación.
E) Contar con canales de comunicación propios para difundir las actividades, servicios y productos de la cátedra

Las candidaturas recibidas se seleccionarán en base a los requisitos anteriores, siguiendo los criterios de evaluación recogidos en el siguiente apartado VII.

El número máximo de empresas que compondrá la cátedra quedará a criterio de la Universidad.

## VII.- HAUTAGAIEN EBALUAZIOA

Kandidaturen ebaluazioa Euskal Herriko Unibertsitateko hiru adituk osatutako batzorde batek egingo du, katedraren sustatzaileak izendatzen duenak, eta sustatzailea horietako bat izango da.

Adituek ebaluazio-saioan puntuatuko dute hautagai-zerrenda bakoitza, eta aditu bakoitzak emandako puntuen batura lortuko dute eskaera bakoitzean.

Hauek izanen dira puntuazio irizpideak:

Hasiera batean, enpresek hartutako konpromiso ekonomikoei aurre egiteko kaudimen ekonomikoa frogatu beharko dute. (A)

| Irizpideak | Maximoa | Minimoa |
|---|---|---|
| B) Erakundeak identifikatutako gai-arloarekin duen esperientzia | 30 | 15 |
| C) Inpaktua, merkatura transferitzeko gaitasuna | 20 | 10 |
| D) Katedrarako ekarpen ekonomikoa | 30 | 10 |
| E) Katedraren jardueren difusio gautasuna | 20 | 10 |

## VII.-EVALUACIÓN DE LAS CANDIDATURAS

La evaluación de las candidaturas se realizará por un comité de tres expertos de la Universidad del País Vasco que el promotor de la cátedra designe, siendo el promotor uno de los mismos.
Los expertos puntuarán cada candidatura en la sesión de evaluación, obteniendo cada solicitud la suma total de la puntuación asignada por cada experto.

Los criterios de puntuación serán:

Inicialmente las empresas deberán demostrar la solvencia económica para hacer frente a los compromisos económicos adquiridos. (A).

| Criterios | Máximo | Umbral |
|---|---|---|
| B) Experiencia de la entidad con el área temática identificada | 30 | 15 |
| C) Impacto, capacidad de transferencia al mercado | 20 | 10 |
| D) Contribución económica a la cátedra | 30 | 10 |
| E) Capacidad de difusión de las actividades de la cátedra | 20 | 10 |

## VIII.-ESKAEREN AURKEZPENA

Enpresek agiri bat aurkeztu beharko dute, dokumentu honetako VI. puntuan eskatutako A), B), C) D) eta E) puntuei erantzuna emateko.
Eskaerak 2023ko Irailaren 5eko goizeko 10:00-ak arte jasoko dira.
Eskaria UPV/EHUren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko da
https://egoitza.ehu.eus/inicio

"Jasotzailea" atalean ZIENTZIA ETA GIZARTE GARAPENAREN ETA TRANSFERENTZIAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA adierazita.
Horretarako, hauetako ziurtagirietako bat erabili beharko da: UPV/EHUko langileen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen ziurtagiri digitala,
NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES)

## VIII.-FORMALIZACIÓN Y PRESENTACION DE LAS SOLICITUDES

Las empresas deberán aportar un documento dando respuesta a los puntos A), B), C) D) y E) requeridas en el Punto VI de este documento.
Las solicitudes se recogerán hasta el 5 de septiembre de 2023 a las 10 am.
La solicitud deberá presentarse en el registro electrónico de la UPV/EHU, ubicado en la dirección URL
https://egoitza.ehu.eus/eu/

eligiendo en "Destino" de la solicitud a VICERRECTORADO DE DESARROLLO CIENTÍFICO-SOCIAL Y TRANSFERENCIA.
Para ello, se deberá utilizar el certificado electrónico de empleado o empleada de la UPV/EHU, o el certificado Digital de Usuario de Izenpe, el DNI electrónico o el Certificados de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre FNMT- CERES

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Era berean, eskaria sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan aurkeztu ahal izango da eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre.
Bulego hauen ordutegia helbide honetan kontsulta daiteke:
http://www.ehu.es/oficinas_registro.html

Eskaria posta bulegoetan aurkezten dutenek UPV/EHUko *ZIENTZIA ETA GIZARTE GARAPENAREN ETA TRANSFERENTZIAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZARI* zuzendu beharko diote eskaria eta UPV/EHU barrio Sarriena s/n 48940 Leioa helbidera bidali, posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. art.)

Asimismo, podrá presentarse en los restantes registros electrónicos de cualquiera de las entidades pertenecientes al sector público, y, en casos excepcionales, presencialmente en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU, cuyo horario puede consultarse en la siguiente dirección:
http://www.ehu.es/oficinas_registro.html

Las personas interesadas que presenten su instancia en las oficinas de correos deberán dirigirla a VICERRECTORADO DE DESARROLLO CIENTÍFICO-SOCIAL Y TRANSFERENCIA de la UPV/EHU y remitidas a la dirección UPV/barrio Sarriena s/n 48940 Leioa. así como cumplir la forma que establece el artículo 31 del Real Decreto 1829/1999, de 3 de diciembre, que aprueba el Reglamento por el que se regula la prestación de servicios postales.

## IX.-KONFIDENTZIALTASUNA

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du baliatuko dituen datu guztiak oro konfidentzialtasunean mantentzeko.
Ahalik eta konturik handiena jarriko da datuak kontsultatzerakoan. Alor horretan egiten den edozein arau hauste larritzat jo eta kontratua baliogabetzeko arrazoi nahikoa izango da, betiere horrek sor litzakeen zigor erantzukizunak edo bestelakoak alde batera utzi gabe.

Leioan, 2023ko abuztuaren 1ean.

## IX. CONFIDENCIALIDAD

Las empresas adjudicataria se comprometen a preservar la confidencialidad de cualesquiera datos a los que tuviera acceso.
Se establecerán las máximas cautelas en el acceso a los datos. Cualquier infracción en este sentido será calificada como grave y será causa de resolución del contrato, sin perjuicio de las responsabilidades penales, o de otro tipo, en que se pueda incurrir.

En Leioa, a 1 de agosto de 2023

14952802L GUILLERMO QUINDOS (R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por 14952802L GUILLERMO QUINDOS (R: Q4818001B)
Fecha: 2023.08.01 14:19:32 +02'00'

*Guillermo Quindós- Andrés*
Vicerrector de Desarrollo Científico- Social y Transferencia
*Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren Arloko Errektoreordea*